

MARTXOAK 8: IKASTETXEAN JARDUERAK

AITA MARI ERAIKUNTZAN:

- Pasabideak apaindu lelo honen inguruan: “GURE BIZITZAKO EMAKUMEAK”. Ikasle bakoitzarentzat garrantzitsua den emakume baten irudia marraztuko du, (amama, ama, izeba,zaintzailea...).
- Bideo, ipuin, antzerkiak erabili hausnarketa bat egiteko:
“Arturo y Clementina” bideoa ikusi.
“Yo voy conmigo” ipuina kontatu.
“Cuando las niñas vuelan alto” antzerkia ikusi.
“Papa’s boy” bideoa ikusi.

SAGARBIDEAN:

- LH2n: “Emakume zuzenak abestia ikasi eta landu fitxa batekin.
“Zure hegoak zureak dira” lelopean, ikasleek egindako tximeletakin hormairudi handi bate gin eta pasabidean zintzilikatu.
- LH3an: Ipuin bat irakurri protagonistaren generoa zein den esan gabe.
Gero bakoitzak marrazkia egingo du protagonista nolako den ulertarazteko.
Gairen inguruko abestiak eta ipuinak landu.
- LH4an: Geletan gaia landuko dute, beraiek sortutako mezuak-leloak erabiliz eta pasabidean zintzilikatuko dituzte.
Gaiaren inguruko abestiak entzun, abestu...
- LH5ean: Tutoretza saioetan gaia lantzen dute eta egunero 5 ikaslek emakume bati buruzko informazioa ekartzen dute, eta gelakoei azaltzen die.
- LH6an: “Figuras ocultas” pelikula ikusi, eta gaiaren inguruko hausnarketa egin.
Irukiak marraztu eta leloak pasabidean jarri.